

«Liburu hobek idazten dira aitzoarekin arkatzarekin baino»

Irati Jimenez. Idazlea.

'Aiztoa eta arkatza', literatura idazteko hamaika autoreren aholkuak aurkeztu ditu

ELKARRIZKETA

IRAIZ URKULO

Irati Jimenez (Mundaka, 1977) ipuin eta eleberri idazle gisa ezagun dugun arren, aipu-biltzaile bilakatu da 'Aiztoa eta arka-tza' izenburuko liburu berrian (Txalaparta, 2013). Bertan, literatura idazteko aholku-xorta bat eskaintzen digute hainbat garai, tradizio eta generotako egileek. Jimenezekin batera, Harkaitz Cano hitzaurregileak eta Antton Olariaga ilustratzaileak hartu dute parte. Irati Jimenezekin bildu gara Territoriosen euskal literaturan aurrekaririk ez duen lan berezi honi buruz hitz egiteko.

– Nola jaio zen proiektu hau, literatura idaztearen gaineko autoreen aholkuak jaso eta hortik liburu bat sortzekoa?

– Liburuak sarritan sortu ohi diren moduan, gehiegi pentsatu gabe eta erdi kasualitatez! Nik autore batzuen aholku-sortak ezagutzen nituen, pare bat edo, eta Mikel Sotorena, Txalapartako editorearena izan zen horrelako zenbat ote zeuden jakiteko gogo. «Emango ote dute liburu baterako?», galdetu zuen eta... eman dute! – 'Aiztoa eta arkatza', zer dela eta izenburua?

batzuetan, idaztearen plazarekin batera, sentitzen dugun minaz hitz egiteko.

– **Antton Olariagaren marrazkiek laguntzen dituzte aipuak.**

– Ilustrazioetan testuan beste narrazio dago. Ni saiatu naiz hitzez Borges edo Virginia Woolf nor diren laburtzen eta berak ahalegin bera egin du marrazkien bidez.

– **Harkaitz Canok idatzitako hitzaurreak ere badu mamia.**

– Liburuaren atari bikaina da hitzaurrea, nik ez nuke edukia modu horretan laburtzen jakingo, hain aitzo zorrotzarekin. Bereziki, hitz bat lapurtuko nioke Harkaitzi, 'idazkurleak'. Liburu idazleentzat baino idazkurleentzat dela dio, eta ados nago: Nortzuk gara idazle eta nortzuk irakurle? Idazle profesionalak edo argitaratuak ez gara horrenbeste, baina egunean zehar nork ez du zerbait idazten? Idazkurle gara!

Idazleen gomendioak

– **Zer irizpide aplikatu duzu egileak eta aholkuak aukeratzeko?**

– Liburu egiteko asmorik izan aurretik ezagutzen nituen aholku-sortak izan ziren abiapuntua. Elmore Leonard eta Billy Wilderrenak aspaldi irakurri nituen eta horiei buruz hitz egitean, editoreak George Orwellenak pasatu zizkidan. Hortik aurrera aukeraketa guztiz apetatsua eta nire

«Liburu egiteko asmorik izan aurretik ezagutzen nituen aholku-sortak izan ziren abiapuntua», dio Jimenezek

joeren isla izan da. Umorera lerratzen diren testuak maite ditut, itzulpenetan ohitura gehiago dut egile anglosaxoiak irakurtzeko, genero ikuspuntutik emakumeen lana ikusarazteak kezkatzen nau...

– **Liburuan agertzen diren egileen artean, bada idazle baino aholkulari hobea denik?**

– Aholkuak ematea horiek betetzea baino errazago delakoan nago, ez bakarrik idazteari dagokionean. Idazle askok harritu naute aholkulari bikainak direlako eta nik idazle gisa ez nituelako ezagutzen. Stephen King, bereziki, aurkuntza harrigarria izan da niretzat. Apenas ezagutzen nuen idazle bezala eta liburu osatzeko bere 'On Writing' irakurri nuenean, txundituta geratu nintzen aholkuen mailarekin eta bere idazketa estiloaren zintotasunarekin.

– **Aholku-sorta bakoitza autorearen biografia txiki batek laguntzen du. Literatura ona eta, hortaz, hura idazteko aholkuak ez al ziren zerbait unibertsal eta atemporalak?**

– Ez dakit literatura guztiz atemporal den. Nik esango nuke hitz eder saldoa idatzi direla garaiari lotuak eta horrek eman diela maiz unibertsaltasuna. Edozein kasutan, biografiak ez dira inolaz ere beharrezkoak, baina irakurleak ez ditu zertan idazle guztiak ezagutu behar eta gutxieneko jakin-mina ase-tzea liburu osatu dugunoi tokatzen zitzaigulakoan nengoen.

– **Bada errepikatzen den aholkurik?**

– Idazle gehienek aitortzen diote garrantzi erabakigarria lanerako gaitasunari eta diziplinari. Faulknerrek dio «inspiratuta nagoenean soilik idazten dut, zorionez, beti nago inspiratuta goizeko bederatzietan puntu-puntu». Zintotasunez idazteko, horra beste aholku oso errepikatu bat. «Bilatu egia bat idaztera-



Irati Jimenez idazlea aipu-biltzaile bilakatu da bere azken eleberrian. :: LUSA

koan», askok bat egiten dute benetako emozioak bilatze horretan. Iritzi kritikoak bilatzearen garrantzia, laburtzearen, eta maite duzun horrekiko maitasuna ez galtzearena. Horra errepikatzen diren beste batzuk.

– **Zu, idazlea zaren aldetik, zer aipurekin zatot bat?**

– Aipu askorekin nator bat, baina ez zentzu orokorrean. Hau da, ez nuke esango liburu honetan aholku unibertsalak daudenik, edonorentzako modukoak. Idazle bakoitzak berari onuragarri izan zaizkionak jasotzen ditu eta, beraz, irakurle bakoitzak bere beldurrei, oztopoei eta frustrazioei edo mugei aurre egiteko onuragarrienak aukeratu ditu, baten bat aukera-

tzen badu. Besteak utikan! Nire kasuan, Billy Wilderren bat, adibidez, izan zait lagun-garri: «Hirugarren atala idazterakoan ezinean bazabiltza, arazoa bigarren atalean dago». – **Inork pentsa lezake aholku guztiak jarraituz gero, idazle gisa arrakasta ziurtatuta duela.**

– Ez dago arrakasta izateko errezetarik! Arrakasta zer den ere idazle bakoitzak modu batera definituko lukeelakoan nago. Aholku gehienek beste helburu bat dute, askoz apalagoa: idatzi nahi duenari eta ezinean dabilenari frustrazio horri eta beldur horri begiratzeko eta aurre egiteko tresnak ematea. Hori eta literaturari, idazteari edo haien buaruari barre gitea, akaso.

– **Literatura-gomendioez ari garela, nori gomendatuko zenioke 'Aiztoa eta arkatza' Idazleei?**

– Idazleak uste baino gehiago garela onartzen bada, orduan idazleei. Baina idazleak nor-tzuk dira? Ez ote ditugu idazten egunero email eta whatsapp saldoak? Eta lanean? Txostenak, laburpenak, argibideak. Denok idatzi behar izan ditugu ipuinak eskolan, eskuti-tzak tarteka, erreklamazio-orri zailak edo maitasuneko hitz are zailagoak. Hitza denona da, ez idazleona, eta hi-tzarekin denok trabatu garen neurrian, denontzako liburu izan daiteke. Hitzen sukaldak jakin-mina eragiten badizu, zuretzako da liburu.